

Ikusmenerako, azenarioak ala radarrak?



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Londres, 1940ko irailaren 7a. Luftwaffe aireko indar alemaniarrek hiri eraso zuen eta, hala, *Blitz* delakoa abiatu zen, Bigarren Mundu Gerran alemaniarrek Britainia Handiko helburu zibilen aurka egindako aireko eraso sorta. Hiriburua jarraian 57 gauez bonbardatu zuen Luftwaffek. Londres 71 aldiz eraso zuten guztira, 1941eko maiatza arte. Uhartetako beste 15 hiri ere bonbardatu zituzten, eta kanpainak iraun zuen bitartean milaka tona lehergai jaurti zituzten.

Blitz-ari eusteko, erantzun zuzena antolatu zuen britainiar gobernuak, bestea beste, eta RAFeko pilotuek hegazkin alemaniarrek erasotzeari ekin zioten. Lan horretan bereziki nabarmendu zen John Cunningham (1917-2002) pilotua, Luftwaffeko 20 hegazkin botata. Ia denak gauez bota zituen, *cat eyes* edo katu begi ezizena eman zioten.

Baina katu begi haiek ez zeuden Cunninghamen aurpegian, hegazkineko teknologian baizik. Cunningham RAFeko 604 eskadroiko kapitaina zen, eta eskadroi horren hegazkinek aireko radar sistema berritzailea zuten, Airbone Interception izenekoa. Horri esker errazagoa zen bonbaketari alemaniarrek antzematea eta botatzea. Baina radar berria sekretupekoa zen; gobernuak ez zuen etsaiek haien mesedetan erabiltzerik nahi. Horregatik, Cunninghamen eskadroiaren ikusmen bikaina azena-



BNP

JOHN CUNNINGHAM PILOTUA ETA DOCTOR CARROT PERTSONAIA, AZENARIOEN KONTSUMOA SUSTATZEKO ETA MITOA ELIKATZEKO TANDEM ERAGINKORRA.

rio asko jatearen ondorio zela esan zuen. BBC irratia zabaldu zuen zurrumurruaren berri. Eta, horrekin batera, marrazkietako bi pertsonaia sortu zituzten, Doctor Carrot eta Potato Pete, azenario eta patata kontsumoa sustatzeko; urte batzuk lehenago AEBetan Popeyerekin eta espinakekin egin zutenaren antzera. Hala, ondo elikatzeaz gain, herritarrek ikusmena hobetuko zuten, eta *Blitz*-ak eragindako itzalaldietan mesede egingo zien horrek. Bi elikagaien kontsumoak izugarri egin zuen gora eta azenarioen mitoa, gaur egun indartsu irauten duena, zabaldu zen.

A bitamina funtsezkoa da begien osasunean. Bitamina horretan urriak diren dietek, muturreko kasuetan, ikusmen arazoak eragin ditzakete. Baina gibelak, azak edo Popeyeren espinakek, adibidez, azenarioek baino A bitamina gehiago dute. Izan ere, azenarioek ez dute berez A bitaminarik, betakarotenoa baizik; karotenoa A bitaminaren aitzindaria da, hau da, karotenoa duten landareak jaten dituzten animaliek A bitamina eratzen dute gibelean.

Beraz, azenarioek ez dute ia eraginik gure ikusmenean. Gobernuetako propaganda egiturek, aldiz, sekulako eragina izan dezakete gure ikuspegian. ●

Aurkikuntzak merezi du?

2011n *Glacier Archeology Program* ekimeneko lantaldeak 1.700 urteko tunika aurkitu zuen Norvegiar, Lendbreen glaziarraren inguruan. Hurrengo urteetan taldeak eremua ikertzen jarraitu du eta duela 1.700 eta 500 urte arteko beste 1.000 objektu inguru topatu dituzte. Aurkikuntzak ondorio interesgarri eta positiboa izan du, jakinarazi beri dutenez: inguru haietatik orain arte

ezezaguna zen merkataritza bidea igarotzen zen, 1.200 urtez bikingoek erabili zutena.

Baina aurkikuntzaren arrazoa bera ez da batere positiboa: Lendbreen glaziarra urtzen ari delako azaleratu zen tunika eta horrek erraztu du gainerako objektuak aurkitzea. Hau da, klima aldaketari "esker" dakigu merkataritza bide horren berri. ●



GLACIER ARCHEOLOGY PROGRAM